

## 7. ALIANTZAK

Gure proiektu aurrera eramateko garaian, kontuan izanda hainbat zerbitzu eskaintzen ditugula, zerbitzu hauek posible egiten dituzten enprekin kontaktuan jarri eta beraiekin lan egingo dugu.

Lehenik eta behin gure bozgoragailuak sortzeko eta ekoizteko teknologia enpresa batekin kontaktuan jartzen saiatuko gara, Euskaltekin. Euskaltel euskal autonomia erkidegoan bere zerbitzuak eskaintzen dituen telekomunikazio-konpainia bat da. Oso interesgarria iruditzen zaigu hauekin kontaktuan jartzea, gure enpresan ekarri ditzaketen aberasgarritasunagatik. Behin bozgoragailuak ekoiztea lortu dugula honen bidez eskainiko ekintzak posible egiteko hainbat enpresa eta kooperatibekin kontaktuan jartzen saiatuko gara.

Hauek salduko dizkiguten bozgoragailuak, bozgorailu arruntak izango direla kontuan hartu behar dugu. Beraz hauen konfigurazioa gure eskuetan dago. Bozgoragailuak gure beharrak ase ditzan gure informatika sailak sartuko du eskua. Gure informatikoei bozgoragailuak gure beharretara moldatuko dituzte, hauen konfigurazioa eginez.

Erosketak egiteko garaian, Eroski kooperatibarekin kontaktuan jarri eta hauen laguntza lortzen saiatuko gara. Hauen bidez gure bezeroek eskatutako produktuak lortu eta hauei salduko zaizkie.

Arreta sanitario edo osasunarekin zerikusia dituzten eskaerak bertaratzeko Gipuzkoako Aldundiarekin harremanetan jarriko gara eta behin proposamena eginda beraien erantzuna itxoin beharko dugu, osakidetza edo osasun publikoari gehigarri bezala lagungarri izan gaitezkelako.

Gure bezeroek garbiketa eskaerak aurrera eramateko Limpiezas Arreta Donostiako garbiketa-enpresarekin kontaktuan jartzen saiatuko gara, hauek gure bezeroen etxeak garbitu dezaten.

Mugikortasun eskaerak egiten dizkigutenean hainbat garraio aukera eskainiko ditugu. Kontuan hartu behar dugu gure bezeroak hirugarren adineko pertsonak direla, eta askok mugikortasun arazoak izango dituztela. Asko urruti bizi daitezke, beste asko elbarriak izan daitezke. Beraz Erbi autobus enpresarekin kontaktuan jartzen saiatuko gara. Autobus txiki eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonen egokituak izango dira, hauen bidaiak ahalik eta hoberena izan daitezen.

Publizitatea edo ezagutza bilatzeko garaian, SEO aditu batekin elkartzen saiatuko gara, lankidetzan ibiliko gara gure zerbitzua edo gure enpresa bilatzen duten erabiltzaileek interneten bilatzean gure weba lehen emaitzetan ager dadin. Modu honetan bezero gehiagok aurkituko gaituzte eta ezagunagoak egingo gara.